

DAVID GOROSPE

Noiz, nola eta zergatik hasi zinen bateria jotzen?

Oso goiz hasi nintzen. 3 edo 4 urtekin, ez naiz oso ondo oroitzen. Nire aita ere baterijolea da eta garai horretan astebururo ibiltzen zen alde batera eta bestera. Sarritan berarekin eramaten zidan kontzertuetara eta horrela hasi nintzen musika tresna hau ezagutzen. Bateria muntatzen eta jasotzen laguntzen nion eta pixkanaka abesti bat edo pare bat jotzen hasi nintzen bere taldekideekin. Berari postua kendu arte. (Broma)

Zein da musikarekin lotzen duzun lehen oroitzapena? Eta bateriarekin lotzen duzun lehena?

Txikitatik gure gurasoek musika jartzen ziguten edonon, etxean, kotxean... eta oroitzapen oso politak ditut guraso eta arrebeekin kotxean joaten ginenean oporretara. Aitak kotxean zituen diska sorta osoa entzuten genituenean nazkatu arte. Beno inoiz ez ginen nazkatzen egia esan...

(jeje)

Bateriarekin ditudan lehengo oroitzapenak, ba lehen aipatu dudan bezala aitarekin bere kontzertuetara joaten nintzenean. Baita ere hiru edo lau urterekin jostailuzko bateria bat oparitu zidatenean. Nire lehengo bateria! Honekin hasi nintzen jo eta su gogoz astintzen, aitaren mugimenduak antzeratuz. Baita ere tanborradako pare bat danbor gehitu nizkion bateria horri eta etxeko sukaldeko edozein traste baliogarria zen, edozein kazerola, zartaginen tapak, egurrezko koilarak eta tenedoreak, en fin, ama gustora egongo zela... (jajaja) Umerik zoriotxuena sentitzen nintzen.

Zeintzuk izan ziren zure lehen musika eraginak?

Talde askoek eta estilo ezberdinetakoek eragin dute nigan. Aita beti izan da rock maitale amorratu bat eta ama berriz pop edo folk estilo geihago entzuten zuen. Hona hemen oroitzen ditudan talde batzuk: Genesis, Pink Floyd, Toto, Led Zeppelin, The Police, Van Halen, Deep Purple, Asia, Queen, Brian Adams, Creedence, Boston, Joe Cocker, Bob Dylan, Steely Dan, Dire Strait, The Beatles, Electric Light Orchestra, Supertramp, Steve Wonder, Chicago...

Musika ikasketak egindakoa zara edo zure kasa ikasi duzu?

Lehengo pausoak aitarekin ikasi nituen. Hortik aurrera beti ibili izan naiz irakasle eta musika eskola ezberdinetan, eta noski eraberean nire kasa. Garrantzitsua edo garrantzitsuena hori bait da, norberak klasean ikusi eta landu dituen ideak gero bakoitzak bere kabuz sokontzea, eta nola ez, musika jarri eta gainetik jotzea, eritmoak eta "break"-ak, "solo"-ak aztertzea etab...

Orain arteko zure musika ibilbidearen laburpena? Ikasketak, taldeak, etab...?

Zarauzko Kame musika eskolan aritu nintzen sei bat urte, solfeo eta bateria ikasten. Geroago Donostiko Jazzle musika eskolan, Pako Díaz handiarekin. Nire aitarekin batera nigan eragin handien izan duen pertsona. Pakorekin hamar urte egon ondoren Estatu Batuetara joan nintzen, Los Angelesera hain zuzen, "Musician Institute" eskolara. Bertan sei hilabete egon nintzen irakasle eta ikasle izugarriekin. Esperientzi hau eta gero Musikenen jarraitu nituen nire ikasketak beste 4 urtez, Jazz-eko goi mailako ikasketak bukatu arte.

Ikasketa hauetaz aparte beste irakasle askorekin ikasteko aukera izan dut, Jazz-eko hainbat ikastaro eta baita "master class" edo eta klase partikularretan: Al Foster, Dom Famularo, Chris Coleman, Mark Miralta, Jo Kraus, Guillermo McGill, David Barcos etab...

Taldeei dagokionez, hainbat proiektuetan aritu naiz. Geto Pa Lante, Aerosol, Ipar Haizea, Skasti, Deabruak Teilatuetan, Seiren, Olatz Zugazti. Eta gaur egun Buffalo, Gozategi, Benito Lertxundi eta Alex Ubagorekin nabil lanean.

Parte hartu duzun diskoetako erritmoak sortzeko metodo finko bat daukazu? Ikasterako orduan? Zein da musikari gisa konposatu eta ikasteko duzun filosofia?

Egia esan ez dut metodo zehatzik. Beti pentxatzen dut melodian, eta baxuak egiten duen patroiritmikoan. Hortik aurrera abesti hori janzten saiatzen naiz, nire ustez behar duen erritmo sendo hori gehituz.

Ikasteko garaian beti izaten da ezberdina. Astearen edo egunaren arabera. Orain arte adibidez transkripzioak, jazz-eko erreperitorioak, bateriako rudimentoak, armonia, arregloak, pianoa eta horrelakoak ikasten ibili naiz buru belarri.

Gaur egun adibidez beste gauza batzutan zentratzen saiatzen naiz. Nire taldeetako erreperitorioak errepasatzen ditut eta beti hauek era batera edo bestera hobetzen. Gero ere bateriak eskaini dezakeen soinu ezberdinak aztertzen saiatzen naiz, afinazioarekin eta partxe ezberdinak probatzen etb. Eta nola ez, gehien atsegin dudan gauzetako bat, diska edo abesti batzuk hartu eta gainetik jotzea, beste baterijolearen soinua eta erritmoak imitatuz edo eta "Free Style" bat eginez. Momentu horren helburua gozatzea da. Azkenengo hau behar-beharrezko ariketa bat dela iruditzen zait.

Teknikoki fina izatea ez da nahikoa, aspektu psikologiko eta humanoak garrantzia handia dute gure ogibidean, nola lantzen dituzu azken hauek?

Egia esan ohartuki ez ditut lantzen aspektu hauek. Garbi dago teknikoki fina izateak edozein ogibideetan garrantzi handia duela, baina gure kasuan konkretuki, musikariek helburu garbi bat dugula iruditzen zait, eta helburu hori entzunleei zerbait transmititzea da. Gure musika tresnarekin edo musikarekin ez badugu emoziorik transmitzen jai dugu. Musikaren gauzarik politena eta garrantzitsuenetako bat hori dela pentsatzen dut. Abesti, melodia edo erritmo batek emozionatzen gaituenean, edota zerbait entzun eta beste garai edo toki batera eramaten gaituenean. Hori teknikarekin bakarrik lortzea ezinezkoa dela iruditzen zait.

Hontaz aparte, jende askorekin gaude kontaktuan (ikasle, irakasle, musikoak, zuzendariak, ikusleak, teknikoak etb...) eta ardura handikoa iruditzen zait harreman horiek zaintzea eta talde lanean giro ona izatea.

Bi aspektu hauek oso garrantzitsuak dira edozein ogibideetan eta nola ez bizitzan orokorrean. Norberaren txikitako hezkuntzaren arabera gehiago edo gutxiago landu beharreko bi aspektu direla iruditzen zait.

Zein musika entzuten duzu inspirazio iturri bezala edo gozamenerako?

Ufff!!! Musika gehiegi entzuten dut (jaja). Ba eguna edo astearen arabera hau ere. Inoiz ez naiz estilo konkretu batean finkatzen. Beti nago musika edo talde berriak eta ezberdinak entzuten. Azkenaldian entzuten nabilen talde batzuk aipatzen dizkizut: Jordan Rakei-Cloak, Jetro Tull-Aqualung, Alpha Mist-Antiphon, Nate Smith-Pocket Change, Bonobo-Migration, John Mayer-The search for everything, Vulfpeck (diska guztiak... jajaja).

Euskal Herrian egindako musikaren artean eragin zaituzten hiru disko aipatzerik bai?

Oso zaila iruditzen zait hainbeste talde eta diskoen artean hiru aukeratzea. Hainbat aipatu beharko nituzke, bakoitzak bere estiloan izan duen eraginagatik: Errobi-Gure lekukotasuna, Itoitz- Espaloian, Gozategi-Kalanbreak, Akelarre-Hator! Kortatu-Aizkolari, Skalariak-En la calle, Hertzainak-Hertzainak, Benito Lertxundi-40 urtez ikasten egonak, Sorotan bele-Sorotan Bele, Su Ta Gar- Jaiotze Basatia. Berri Txarrak- Jaio. Musika.Hil, etab...

Euskal eszenako hiru bateria-jole? Zergatik?

Paco Díaz. Niri eta nire inguruko baterijole askorentzako eragin handia izan duelako eta Euskal musikaren munduan mito bihurtu delako.

Musikaren historian sortu diren diskoetako zeinetan gustatuko litzaizuke parte hartu izana?

Led Zeppelin- Led Zeppelin II, Toto-IV, The Police-Outlandos D'Amour. Christian Scott-Stretch Music. Wane Shorter-Speak No Evil, etb...

Zeintzuk izan dira zure bateria-jole fetitxeak?

Bill Stewart, Elvin Jones, Jeff Porcaro, John Bonham, Brian Blade, Nate Smith, Amir Thompson "Questlove", Mark Guiliana, Cris "Daddy" Dave, Steve Jordan, Corey Fonille, JJ Johnson, Nate Wood... (ez nuen inoiz bukatuko jaja).

Ametsik baduzu buruan? Zeintzuk dira zure gertuko helburuak?

Benetan gustatuko litzaidake orain bezela jarraitzea. Gaur egun musikaz bizitzea oso zaila dela iruditzen zait eta zorte handia dugu maite dugunaz lan egiten dugunok. Egunen batean nik konposatutako abestien diska argitaratzea izango zen amets moduko bat.

Ikasten eta irakasten jarraitzea dira nire gertuko helburuak.

Bateria-jole fin batek zein ezaugarri eduki behar ditu zure ustez?

Musika tresna sakonki ezagutzea, sortzailea izatea, eta nola ez jotzeko garaian emozionalki sentitzen duena adierazten jakitea.

Musikaren inguruan inoiz galdetu ez dizuten zerbaiti erantzuna eman nahi diozu? Orain duzu aukera....

Ez zait ezertxo ere ez okurritzen.

BATEK MUSIC